

B

BARREN

Sua uretan, ura sutan





ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2009/2010 IKASTURTEA

ELGOIBARKO INSTITUTUA

Elgoibar Arreiturre B.H.I.

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

www.elgoibarbhi.net



AURREMATRIKULAKO DATAK:
EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 3ra

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zilkioetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak



IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!



IKASFUN!!!

UDAKO PROGRAMA

IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!

- 🔴 Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
- 🔴 Programa trinkoa.
- 🔴 Dinamikoa eta praktikoa.
- 🔴 Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
- 🔴 Talde eta lan-metodo ugari.
- 🔴 Adin taldeak: 5-7, 8-10, 11-12, 12-14 urte.

KURTSOA	MAILA	IRAUPENA	PREZIOA
Behe-mailako moduloak Ikasfun	0tik 10erako maila 5-14 urte	66 ordu (3 ordu egunean)	200 euro
Goi-mailako moduloak	7tik 10erako maila First	44 ordu (2 ordu egunean)	261 euro

IKASFUN: 2 ordu egunean..... 175 euro
Ordubate egunean..... 125 euro

GOI-MAILAKO MODULOAK: 3 ordu egunean..... 396 euro
Ordubate egunean..... 135 euro

Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: donosti@kensington-sl.es

San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxe: 943 74 35 12
E-posta: elgoibar@kensington-sl.es

55

Sarri askotan esan ohi dugu zenbakiak ezer gutxi esaten dutela, hotzak direla, baina hortxe daude, gurekin batera, gustatu zein ez gustatu, bizitzaren lasterketan bukatu arte. Hasiera batean, zenbaki lotsakor horiek bakarka, trakets jorratuko dute bidea, gurasoek lagunduta; gero, potolotzen joango dira eta behin koskortutakoan, bikotekide berri asko ezagutuko dituzte eta elkarrekin oheratuko dira, eta promiskuoa izango dira, adinak esperientzia berriak eta sutsoak baitakartza. Eta horrela, bikotekideak ondoan, bizitzaren zati handia egingo dugu jakin gabe bikotekideetan nor izan dugun gustukoena, zenbaki bikotekide guztiak bai tamaina batean, bai bestean lagunduko baitigute bizitzaren gogorrean gozatzen. Lehengo larunbatean, mahai baten bueltan, eta Eguren taldearen musika lagun, 5 zenbaki bikotea dutenekin egoteko aukera izan nuen. Asko ezagunak, tartean ezezagunak, baina guztiak irrikatan aspaldikoa berriro bizi izateko, orduko moralak lapurtutako zirriak, ametsak... gogora ekartzeko. Bai, oso politikak izan ziren ahopekako berbaldiak, ezkutuko begiradak. Ez dakit kanpokoek nola ikusiko gaituzten, distantziara teleobjetoak beste modu batean enfokatzen baitu errealitatea, baina nik egindako argazkiari –horrelakoetan argazkia ezinbestekoa da, nork bere adinaren itxura ondokoekin parekatzeko– begira nengoelarik, oso itxurosoak ikusi nituen 55 urtekook

osatatuko irudia. Asmoa bost urte barru berriro batzea da. Orduan, gure adinaren (60) bikotekide zenbakiak ez du itxura hoberik izango. Burusoiltasunak, ile zuriek, ipurtaldeak... ez dute onera egingo, jakina! Baina orduan ere egongo da zer kontatu, zer entzun, bizitza, azken finean, ipuin bat bezalakoa baita: hasi eta buka egiten duena. Eta protagonistak aitonak eta amonak izango dira.

Juan Luis Mugertza



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Asmoa bost urte barru berriro batzea da. Orduan gure adinaren (60) bikotekide zenbakiak ez du itxura hoberik izango”

NAHASTE BORRASTEKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



PINTXOAK AUKERAN

Gaur eta bihar Gurean Bai I. Pintxo Lehiaketa egingo dute Elgoibarren. Gaur, barixakua, 19:00etatik 22:00etara, eta bihar 11:30etik 14:30era. Herriko hamar tabernekin hartu dute parte lehiaketan, eta bakoitzak pintxo bana aurkeztu du. Lehiaketak iraungo duen bitartean, pintxo horien salmenta prezioa euro batekoa izango da.

Bi sari banatuko dituzte: pintxo onenaren saria eta herritarren saria. Lehenen lau pertsonen osatutako epaimahaiak aukeratu du, eta bigarrena hautatzeko ardura herritarrena izango da.

Epaimahaiko honako hauek osatuko dute: Gure Bide elkarteko ordezkari batek, Udaleko ordezkari batek, Elgoibarko Izarra elkarteko ordezkari batek eta Belaustegi jatetxeko sukaldariak. Pintxo onena aukeratzeko orduan epaimahaiko kide bakoitzak pintxo osoari erreparatu dio: pintxoaren itxura eta aurkezpena, zaporea eta testura, eta originaltasuna baloratu ditu.

Herritarren sariari dagokionez, pintxo euro baten truke probatzen duten herritarrek tabernan aurkituko duten txartela bete beharko dute. Balorazio txartel bana

emango dute pintxoko, eta, horrela, taberna guztietako txartelak batutakoan jakingo da zein pintxok lortu duen notarik altuena.

Lehiaketan parte hartzen duten herritarrek, euren balorazioa emateagatik saria irabazi ahal izango dute. Parte-hartzaile guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zotz egingo dute.

Sari banaketa uztailaren 1ean egingo dute Pleno Aretoan, eta 12:30ean bi pintxo sarrituen dastatze publikoa egingo dute arkupeetan, doan.

Edurne BURGaña

1 AMETSA kafetegia **Ametsa**

Osagaiak: Foie-grasa, onddoak, sagar-kroketa eta ogi txigortua



2 EL GAUTXO taberna **Gautxitoa**

Osagaiak: Bakailaoa, tomate sikuak, soja ozpin-olioa eta berakatz-ogia



ITURRI taberna **Piper sorpresa**

Osagaiak: Piper berdea, arrautza eta patata



4

3 GABI jatetxea **Ikurriña**

Osagaiak: Bakailaoa, piper gorria eta piper berdea



KING-KONG kafetegia **Lehoi begetala**

Osagaiak: Leongo zezina, eruka, Idiazabal gazta, Parmesano gazta eta mahaspasak

5



LANBROA kafetegia

Ortutxo

Osagaiak: Kalabazina, tipula, piper berdea eta hirugiharra

6



7

LOJANTZI kafetegia

Tenpura

Osagaiak: Kalabazina, azenarioa, tipula, piperra eta mugurdi-saltsa

SALENTO taberna

Kapritxo

Osagaiak: Ogixtoa, mozarella, tomate naturala, urdaiazpikoa eta trufa-krema

9



8

MADIGAN'S irish pub

Tsunami

Osagaiak: Piper berdea, hirugiharra, tipula erdi-egosia, hostoarea eta ahate-mousse saltsa

PAULANER TXARRIDUNA jatetxea

Tinbala

Osagaiak: Kalabazina, bakailaoa, patata eta tipula karameluan.

10



AMAIA LASAGABASTER

Gurean Bai
hitzarmeneko teknikaria

Zein da lehiaketaren helburua?

Ostalaritza sektorea eta euskara bera sustatzeko ekimena antolatzea izan da helburua. Krisi garaian gaudela ikusita, tabernetara jendea erakarri, eta gainera euskara sustatzeko ekimen polita izan zitekeela pentsatu genuen. Horrekin batera, Gurean Bai-Ostalaritza bera promozionatu edo gizarteratu nahi dugu.

Herritarren partetik zer partehartze espero duzu?

Hainbat herritan egin izan dute ekimena, eta harrera ona eduki du. Herritarrek parte hartzen dute aukera ona delako, prezio onean, pintxo gozoak dastatzeko. Eguraldia eta beste hainbat faktore eduki behar dira kontuan. Jendearen artean zurrumurrua badago, eta espero dut parte hartzea. Barixaku arratsaldean eta zapatu goizean izanda, mugimendua espero dut.

Hamar tabernak parte hartuko dute.

Zer iruditzen zaizu kopurua?

Kopuru handia da. Elgoibar guztia kontuan hartuta, 50 taberna inguru daude, baina pintxoak egunero ateratzen dutenak asko jota hamabost dira. Beraz, parte hartzea oso handia da.

Tabernariak eurak pozik daude ekimenearekin?

Herrian zerbait egin behar zela ikusten dute eurek ere, eta lehiaketa polita izan daitekeela uste dute.

Oraindik lehenengoa ez da pasatu, baina berriz ere antolatzeko asmorik?

Ikusi beharko da zer moduz irteten den, eta zer balorazio egiten dugun. Tabernarientzat zer ekarri duen ikusi beharko dugu, baina asmoa, urtero hobetuz, edizio gehiago antolatzea da. Hau hasiera besterik ez da.

MARIA CRISTINA GIANANTI (Argentina)

“Hango agintariek desengainatu egin naute, ez dutelako ezer egiten gauzak hobetzeko”



Senarrarekin 2002ko martxoan bertaratu zen Elgoibarrera. Semea urtebete lehenago etorri zen Euskal Herrira, eta hemengo berri eman zien. Argentinan egoera zailtzen ari zela eta, *corralito*-aren atzamarretatik ihes egitea lortu zuen. Hasieran, paperik gabe jardun zuen lanean. Orain, Espainiako nazionalitatea lortu du, aitita galiziarra zuelako eta amama euskalduna. Maria Cristina Buenos Aires probintziakoa da, baina geurean hain gustura dagoenez, ez dauka itzultzeko gogorik. Hemengo eguraldi umela gustatzen zaio gutxien.

Argentinan zer egiten zenuen?

Urte batzuetan etxeoandrea izan nintzen. Gero, komertzio arduraduna ere izan nintzen, eta saltzaileak neuzkan nire ardurapean. Senarraren tailerreko paperez ere arduratzen nintzen. Horrek guztiak, baina, ez du zerikusirik gero hemen izandako lanekin. Etorri eta taberna bateko sukaldean lan egiteari ekin nion; hasieran, paperik gabe. Gero, ikastaroak egin nituen, eta kutxazaina ere izan nintzen. Tailerretan ere jardun dut, eta horrelakorik ez da Argentinan inoiz ikusi! Gainera, ez da ia tailerrik gelditu. Eta emakume bat tailer batean, are gutxiago.

Hemengo bizimodua eta hangoa oso ezberdinak dira?

Antzekoak dira, eta, era berean, ezberdinak. Familiak eta ohiturek antza handia dute, baina hemen lasaiago bizi da jendea. Zuen antza dugu, zuengandik gatozelako: amama euskalduna nuen; aitita, berriz, galiziarra. Argentinara joan eta ez ziren inoiz itzuli.

Baina zeu etorri zara.

Gurpila da. Ni oso gustura sentitu naiz. Ez dakit argentinarra izateagatik edo zergatik, baina jendeak oso ondo hartu nau. Nire us-tez, guri buruzko iritzi hona dute hemen. Beste batzuekin ez zait iruditzen horrela denik.

Gure antzekoak bai, baina berritsuagoak ba omen zarete.

Argentinarrok jariora dugula eta bertsoa saltzen dugula esaten dute. Orain, baina, ez da lehen bezala... Auzo batean bizi bazara, jende guztiak ezagutzen du elkar. Bada alde nabarmen bat hemengoarekin: hemen etxea norberarentzat da, eta harremanak kalean izaten dira; han, berriz, dena egiten da etxean, bai lagunarteko bilerak, bai ospakizunak... Normala da udan etxe aurrera irtetea eta auzokoekin garagardoa edatea, berriketan. Domeketan etxean bazkariak egitea ere ohikoa da. Gure semeak 18-20 urte zeuzka-



Nire herria

Buenos Aires probintzia



Etorbideak

Buenos Airesko probintzian bizi zen María Cristina. “Hura ez da hau bezalakoa. Egon ezean, ezin duzu imaginatu ere egin. Hemen herri batetik bestera kiometroak daude. Han berriz, etorbide batek banatzen ditu hiriak”.

Lasaitasunik ez

Hemen hiru urte egin ondoren, Buenos Airesera itzuli zen María Cristina, eta Elgoibarko lasaitasunaren falta sentitu zuen. “Zoratzekoa iruditu zitzaidan: autobusak hiru edo bost minuturo pasatzen dira; trenak hamar minututik behin; semaforoak ez dira errespetatzen...”.

Corralito-a

2001ean hasi zen. Handik gutxi-
ra egin zuen hanka María Cristinak. Semea Euskal Herrian zegoen, eta dirua banketxetik ateratzeko esan zien. “Berak hemen guk han baino informazio gehiago zeukan. *Corralito*-a baino lehen atera genuen dirua. Zer egin behar genuen? Senarrak mekanika-tailerra zeukan, baina jendeak autoa konpontzeko dirurik ez. Hona etortzea erabaki genuen. Alabak, berriz, nahiago izan zuen han gelditu. Horrela etorri ginen, eta zazpi urte pasatu dira”.

nean, lagunak ekartzen zituen etxera bazkaltzera –hogei lagun, motor eta guzti etortzen ziren!–. Hori da zuekin ezberdintasuna.

Horren falta sentitzen duzu?

Bai, baina ez nintzateke Argentinara bueltatuko bizi izatera. Agintariek desengainatu egin naute, ez dutelako ezer egiten gauzak hobetzeko. Boterera heltzen den bakoitzak ahal duena eskuratu nahi du. Han lapurretan ari dira. Gure alkateak Espainian hotel bi eraiki zituela jakin genuen. Badakigu horrela izan dela, baina alkate jarraitzen du, zortzi-hamar urtean. Inork ez du ezertxogatik ordaintzen. Zertarako egin behar dut nik lan han, euren erruz ezer ez edukitzeko?

**“Hemen harremanak
kalean izaten dira,
ez etxean; han,
berriz, dena egiten
da etxean”**

Beste urte gogor batzuk ere ezagutuko zenuen, diktadura sasolan.

Ezertan sartuta ez zegoenak ez zuen arazorik izan. Semea 1972an jaio zen, eta alaba, 1977an, dena pil-pilean egon zenean. Guk ez genuen arazorik izan. Hori bai, zure izena norbaiten agendan agertuz gero, susmagarri bihurtzen zinen, zerikusirik izan ez arren. Oso garai gogorra izan zen. Gerora jakin izan dira gauza asko: arma-eskola batean izan zituzten ezkutatuta desagertutako hainbat lagun. Urteetara jakin nuen, esaterako, alabaren eskola-lagun batzuren gurasoena: joanak zirela esaten zen, eta amarekin hazi ziren, baina eraman egin zituz-

ten, eta inoiz ez zen ezer gehiago jakin; orain 30 urte dauzka neskak. Sasoi gogorra izan zen.

Beste sasoi gogor bat *corralito*-a.

Orduan etorri ginen. Zer egin behar nuen? Gordetako dirua *jan* ala beste gauza bat egiten saiatu? Jende askok dena galdu zuen, hona etortzeko, etxea saldu ondoren dirua banketxean sartu zutelako, eta etorri nahi zuenerako ez zuen ez etxerik ez dirurik, *corralito*-ak harrapatu zuelako. Askok bere buruaz beste egin zuten.

Egoera zein da orain?

Hobea da, baina ustelkeria ugari dago. Segurtasuna ez da ona. Jende asko ohitu egin da lan egin bage bizi izaten. Manifestazioetara joateko dirua ematen diete eta gaizki ohitu dira. Nola jarriko dituzu orain lanean? Horri buelta ematea zaila da.

Lanarekin zer moduz zabilta orain? Hemen ekonomia indartsu zegoenean etorri zinen, eta orain krisi betean gaude.

Paperik gabe ez nuen lana topatzeko arazorik izan. Orain, langabezian nago. Nahikoa adin daukat, eta lehenago horrek ez zuen axola. Iazko uztailetik nago lanik bage. Abuzturako lortu dut ordezkapen bat San Lazaro egoitzan. Hemen, behintzat, laguntzak, ikastaroak eta hainbat aukera daude. Han, halakorik ez da.

Beste argentinarrekin harremanik baduzu?

Hemen ezagun bat badut pizzeria duena, semea, koinatak... Etxean oso elkartuta egoten gara argentinarrak, baina kanpoan ez hainbeste. Durangon lagunak izan arren, ez diet deitu ere egiten. Kanpoan gaudenean, elkarren arteko komunikazioa txikiagoa izaten da. Gu komunitatean integratu egiten gara, eta ondo hartzen gaituzte. Hemengora ohitu naiz. Gustuko dut hemengo bizi-modua, baina klima gustatzen zait gutxien.

Oier Narbaiza



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Juan sua dela eta

Jakina denez, herri eta kultura gehienetan egin izan dira suak udako solstizioa ospatzeko, aintzinatik. Mendez mende datorkigu udaren etorrera, eta aldi berean, egunik luzeena ospatzeko ohitura. Horretarako, erritorik nagusienetakoa sua egitea da, eta beronen inguruan era guztietako esaera, kanta, jauzi eta ohiturak heldu zaizkigu. Hau horrela izanik, urtero ikusten ditugu, iluntze aldean, herriko mendi inguruetako baserrietatik keak zerurantz, aintzinako tradizioari edo geurea den ohiturari eutsiz. Eta tradizioa denez gero, herrian bertan ere suak pizten dira. Eta hementxe ikusten dut nik gogoeta egiteko beharra.

Urtero leku ezberdin eta desegokiak egokitzen dizkigute (gaur egun ezin baita nahi den tokian sua piztu), eta aurtengoa arriskutsua ere izan da: hesitutako lur zatian, burdinen, eska-badoren, zangen, enkofratuen eta obretarako materialaren inguruan ibili behar izan du jendeak saltoka.

Beste alde batetik, badirudi baserrietan bizi ez garen herritarrok tradizio honen garrantzia edo pisua umeengan jarri dugula, izan ere haurrak (hamabost urtetik beherakoak) eta hauen gurasoak bakarrik egoten baikara. Era honetako aintzinako tradizioak, ordea, herritar guztiok bizi ditzagun sortuak dira.

San Juan bezpera heldu da, eta suak egingo dira... Zertarako? Horrela

delako, egiteagatik, besterik gabe, egin eta kitto. Umeentzako lekua aurkitu eta hala.

Inpresio hau izan dut azken urteotan, urteko gau berezi eta magikoenari bizitasuna kendu diogu. Eta idazki honen bidez zera galdetu nahiko nieke udaleko kultura arduradunei: ea ezin den antolaketa txukunagoa bideratu, leku egokian, erritoaren benetako zentzua (eta magia!) berreskuratzeko ahalgina eginez, eta adin guztietako herri-tarrantzat bideratuz.

Eskerrik asko.

Lore Laspiur ☺

Kelillo & KimuberriŚk esker onez.

Kaixo lagunok!!!

Datorren ekainaren 27an, Kelillo & KimuberriŚk gure *Maite zaituztegu tour*-en azken emanaldia egingo dugu Birgara Barren herrian. Urtebete (horrela erabaki genuen) iraun duen emankizun honek (atzetik beste bi urteko lana), Birgarako Zentral Etxean ikusi zuen argia estreinakoz pasa den urteko ekainaren 20an, eta, hortik, Nafarroako hainbat herrialde zeharkatu ondoren, Laudioko Orbeko Etxean, Zarauzko Putzuzulo Amets Fabrikari, Sorraluzeko Gaztetxean, Azpeitiko Gaztetxean, Oñatiko Arranon, Gasteizko Gaztetxean, Baionako Xilko ostatuan, Ondarroako Jai Braian eta Elizondoko Gaztetxean aritu ostean, bira-bila ixteko berriro ere Zentral Etxean arituko

gara, bertan gure poesia-doinu-irudiak azkenekoz emateko. Eskerrak eman nahi dizkiegu hori guztia gauzatzen lagundu diguzuenoi: Kili-Kolo eta Ekekei antzerki taldeei, Elgoibarko Gaztetxeari, Zapateneori, Schöpfer der Videoversammlungi, Kañoneromani, Kamara-girls&mansi, Kulebrari, bertsolariei, Istiluri, aterpea eman diguzuenoi, zuen ateak ireki dizkiguzuenoi, eta, era batean zein bestean parte hartu duzuen guztioi, nahiz eta bertan ez egon, beti zaudete gurekin eta gu zuekin. Milesker guztioi!!!

Bertan ikusi-sentituko dugu elkar!!!
Maite zaituztegu!!!! Patto.

Kelillo & KimuberriŚk ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Miriam Garcia

Azkenaldi honetan denboraren nozioa galdu egin dut. Denbora nire eskuetatik labainduko balitz bezala sentitzen dut. Egun batean, abenduan oheratu, eta konturatzera, esnatu eta ekainean

gaude jadanik. Urtarorik gabeko nere lehen urtea betetzear nagolea konturatu berri naiz.

Hotzetik berora doan trantsizio horren falta izan liteke denbora oin-puntetan pasatzearen arrazoi nagusia. Aurten, Gabonak uda minean iritsi ziren, eta ihauterietan dantza egiten ikusi gintuen eguzki berak indar berberarekin berotzen du orain neguaren atarian gaudenean.

“Beharrezkoa da munduan gertatzen denaren berri izatea”

Edo, agian, hemengo mundu txikiaren eta kanpoko mundu handiaren arteko aldizkako komunikazioa da denboraren abiadura trukatzen duena. Askotan, data eta gertaera zehatzez baliatzen gara denbora finkatzeko, eta hemen munduko albisteak pusketetan eta kanpotik iristen zaizkit bakarrik. Dirudienez Iparraldeak krisian jarraitzen du, eta gerrate berberak jarraitzen dute mundua zikintzen, baina informazioa oihartzun urrun bat bezala baino ez da iristen honaino.

Bada denboraldi bat nire buruari galdetzen diodala egungo gertaeretatik sortu den urruntasun hau positiboa ala negatiboa den. Argi dagoena da komunikabideek egunero bonbardatzen diguten energia txar guzti horretatik aldenterakoan, lasaitasunean irabazten dugula behintzat. Hala ere, betidanik pentsatu izan dut beharrezkoa dela munduan gertatzen denaren berri izatea, bizitzan begiak irekita ibili ahal izateko.

Baina batzuetan zalantzak etortzen zaizkit: zer da hobe, egiaren ezagutzea jasan ala ezjakintasunaren zorientasuna gozatu?



Eva Garcia

Eguneroko gertakerien ezagutze ezak kezkatzen zaitu, bai, baina informazioaren urruntasunak onuragarria izan ez arren, komunikabideen urruntasuna guztiz probetxugarria izan daiteke.

Mugitzen garen errealitatea eraiki eta irudikatzen dute komunikabideek, eta egunero erabiltzen dugun informazio asko berriak sortzen dute. Ulertezinak diren edukiak kontsumitzen ditugu, eta ikusten eta entzuten duguna ardurarik gabe onartzen dugu.

Gure munduan, komunikazioa ez da arazo bat; aitzitik, informazioa izan daitekeela iruditzen zait. Agian, ezin ditugu hainbeste baliabide erabili; komunikabidez beteriko gizarte honetan, oraindik ezin izan dugu informazio guzti hori ezagutza bihurtu.

Hurbiltzeko, konektatzeko eta komunikatzeko jaio ziren baliabideek ere urruntzen eta aldentzen gaituzte. Telebistak, aldizkariak eta egunkariak atzean gelditu dira, Internet jaun eta jabe bihurtu den aro teknologiko berri honetan, eta informazio-teknologia guzti horiek gizakiok dugun komunikazio aukerari kalte egin diotela pentsatzen dute askok.

“Komunikabideen urruntasuna guztiz probetxugarria izan daiteke”

Ergel, bereki eta osasuntsu. Horiek dira zoriontsu izateko behar diren hiru baldintzak lagun askoren hitzetan. Baina, beste aldetik, ez al da tristea jakinduria eta zorientasuna alderantziz proportzionalak direla pentsatzea?

Momentuz, mundu kaotiko honetatik isolatzeko abantaila duzu. Beraz, ez zaitetz horretaz kezkatu. Ez jakiteko, informazioa ez jasotzeko eta komunikazioak etete eskubidea zure gain hartu. Nire aldetik, behintzat, sistema itzaltzeko baimen osoa ematen dizut.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gida baimeneko punturik galdu ez dutenei beste bi emango dizkiete uztailean.

Gidatzeko punturik kendu dizute inoiz?



Unai Muñoz
24 urte, soldatzailea

Ez, momentuz behintzat denak dauzkat. Hamabirekin hasi ginen, eta orain hamalau edukiko ditut. Nik uste dut jendeak kontu gehiagorekin gidatzen duela, puntuen sistema martxan jarri zutenetik. Istripuak gutxitu egin dira, baina kontrol zorrotzagoa egin beharko lukete.



Gema Iribarren
40 urte, irakaslea

Suerteza eduki dut, eta momentuz, ez dut punturik galdu. Ni asko ibiltzen naiz errepidean, autopistan batez ere, eta jendea polikiago ibiltzen dela igarri dut. Seinaleak gehiago errespetatzen dituzte gidariek, eta puntuen sistema neurri ona izan dela iruditzen zait.



Monica fernandez
29 urte, laborategiko teknikaria

Ez dut batere galdu. Primeran etorriko zaizkit beste bi puntu. Nik lehen bezala gidatzen dut. Seinaleak errespetatzen ditut, eta kontuz ibiltzen naiz. Hala ere, gidari batzuk oso azkar ibiltzen dira. Hasieran eraginkorra izan zen, baina askori ahaztu egin zaie puntuen sistema.



Jose Luis Niebla
35 urte, langabetua

Ez daukat gida baimenik, baina inguruan baditut puntuak galdu dituzten ezagunak. Jende askok ez ditu arauak betetzen. Nik autobusa edo trena erabiltzen ditut, baina gaur egun ez da erraza gida baimenik gabe bizi izatea. Ea laster ateratzen dudana!

Ziende PROMOZIOAK

ZUREZKO SOMIER FINKOA, NEOX



5 URTEKO BERMEA

MUELLEDUN KOLTZOIA + BISKOA



%100 LATEXEZKO KOLTZOIA



BR KOLTZOIA + BISCOELASTIKOA



BURDINAZKO SOMIER FINKOA, UNO



5 URTEKO BERMEA



MUELLEDUN KOLTZOIA, DOUBLE OFFSET



<table border="1" style="width: 100%; background-color: yellow;"> <tr> <td style="padding: 5px;">90x190</td> <td style="padding: 5px;">459 €</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">135x190</td> <td style="padding: 5px;">684 €</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">150x190</td> <td style="padding: 5px;">684 €</td> </tr> </table>	90x190	459 €	135x190	684 €	150x190	684 €	<table border="1" style="width: 100%; background-color: yellow;"> <tr> <td style="padding: 5px;">90x190</td> <td style="padding: 5px;">272 €</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">135x190</td> <td style="padding: 5px;">378 €</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">150x190</td> <td style="padding: 5px;">438 €</td> </tr> </table>	90x190	272 €	135x190	378 €	150x190	438 €
90x190	459 €												
135x190	684 €												
150x190	684 €												
90x190	272 €												
135x190	378 €												
150x190	438 €												

*prezioak ez ditu bankak kontuan hartzen



Musika eskolakoentzat txalo bat, umeen danborrada antolatzeagatik:

“Oso ondo pasatu genuen Trinitate

Eguneko umeen danborradan, eta eskerrak eman nahi dizkiogu Inazio Bereziartua musika eskolari. Antolatzaileek lan handia egin dute aurten ere, eta oso ondo irten da dena. Jarraitu horrela!” ↓



↑ **Mila esker Altzolako Zubibai elkarteari:** “Zubibai elkarteak antolatuta, Kalamuan izan ginen, eta oso ondo pasatu genuen. Uste baino jende gutxiago elkartu ginen, eta, egia esanda, eguraldiak ez zigun asko lagundu. Hala ere, primeran pasatu genuen. Euria egingo zuelakoan, herrira jaitsi eta elizako arkupeetan bazkaldu genuen. Herritarren batek udaltzainei abisua eman arren, eguna ondo amaitu genuen”.

Eskerrik asko Ana Ansola musika eskolako irakasleari: “Mila esker, Ana, aurten ere zure babesa eta maitasuna eman diguzulako. Lan ona egin duzu ikasturte honetan ere, eta oso gustura ibili gara. Zure ikasleok eskerrak eman nahi dizkizugu”.

Mendaroko Arno elkarteko kideek eskerrak eman nahi dizkiete Ikastolako ate irekien egunean parte hartu zuten guztiei: “Mila esker, alde batetik, Altzolako Urak enpresari eta Nettori, Mendaroko Ikastolaren ate irekien eguna antolatzaren laguntzeagatik. Bestalde, jardunaldi horretan parte hartu zuten guraso, irakale eta ikasle guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Denon artean oso egun polita pasatu genuen”.

Txalo bero bat futbol eskolako entrenatzaileei: “Futbol eskolan dabilzan umeen gurasoek eskerrak eman nahi dizkiegu entrenatzaileei. Mila esker Angel, Xabi eta Ikerri, denboraldi guztian zehar egindako lanagatik”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

II. URTEURRENA

JOSE SAN MARTIN TOTORIKAGÜENA



2007ko uztailaren 4an hil zen.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, barixakuan, uztailak 3, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

JUANITA LOPEZ SANCHEZ



2009ko ekainaren 19an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gure Bidek eta Zubi Ondok urrezko ezteiak ospatu dituzte



Gure Bide



Zubi Ondo

Gure Bide eta Zubi Ondo elkarteek 50 urte egin dituzte aurtan, eta joan zen zapatuan ospatu zituzten urrezko ezteiak. Bi elkarteek elkarrekin antolatu zituzten hainbat ekintza: elizkizunaa, aureskua, Mauxitxa txarangaren kalejira... Bazkideen argakia eguneratzeko ere aprobetxatu zuten ekitaldia, eta ondoren, bazkaria egin zuten.

Gure Bide txirrindulari elkarteak 125 bazkide inguru dauzka eta herrian txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatzeko sortu zen, 1959. urtean. Urtero, San Bartolome bezperan, abuztuaren 23an, egiten den Etxanizen Omenezko txirrindularitza lasterketa ere antolatzen du elkarteak.

Xakea sustatzen

Zubi-Ondo elkarteak, bestalde, xakeari lotuta egon da hasieratik. Gizarte ekintzak antolatzeaz gainera, xakearekiko zaletasuna sustatzea izan da elkartearen helburuetako bat. Udal Kirol Patronatuarekin lankidetzan, Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa antolatzen du urtero.

Ideko IK4 teknologia zentroa %25 hazi da 2008an

Ideko IK4 zentro teknologikoak zazpi milioi euroko diru-sarrerak izan ditu 2008an, eta negozioa %25 hazi da, aurreko urtearen aldean. Hazkunde hori diru sarreretan eta langile kopuruan islatu da, batez ere. Une honetan, 112 langile ditu zentroak.

Urteko mugarririk garrantzitsuenetakoa *Manufacturer of the year* saria izan zen. Bestalde, nazioartean Europako zortzi proiektu aktibotan garatu da. Horietatik hirutan lider teknologikoa izan dela nabarmendu dute arduradunek.

Bestalde, 2008a hausnarketa estrategikoa egiteko aprobetxatu zuen Idekok. 2009-2012 urteetarako plan estrategikoa prestatu eta ezarri diren helburuak lortzeko antolaketa ereduak egin du.


Etorkizunari begira, hainbat plan berri jarri ditu abian. Horietako batzuk dagoeneko gauzatzen ari dira. Esate baterako, sinatu ditu erreminta-makinako eta fabrikazio teknologien sektoreko hiru enprekin berrikuntzarako hitzarmenak, eta laser eta material konposatuen laborategiko lana egiten ere hasi da.

Euskaraz hitz egiteko 'Tertuliak' egitasmoan 17 lagun aritu dira



Elgoibarko Izarrak antolatutako *Tertuliak* programan hamazazpi lagun aritu dira aurtan. Asteazkero ordubetez, bizpahiru laguneko talde txikietan bilduta, euskara praktikatzeko aukera izan dute egitasmoan partehartzaileek. Aurtan sei talde izan dira. Ikasturtea amaitzeko, afaria egin zuten denek batera, ekainaren 18an. Bestalde, ekainaren 6an Gasteizen egin zen Mintza Egunera joan ziren zortzi lagun.

Izena **Oier Ramos**



Oier Ramos elgoibartarrak jaso zuen IMH saria joan zen barixakuan, ikasle ohi aipagarrienaren alorrean. Ekipo Industrialeen Mantenimenduko goi-mailako zikloa egin zuen IMHn, 1999-2000 urteetan, eta azken kurtsuan Etxe-Tar enpresan egin zituen praktikak. Bertan hasi zen lanean, eta gaur egun Makinen Programazio Arloko arduraduna da. 2009ko ikasle aipagarria Asier Arrieta bergararra izan da, eta fabrikazio arloko ikasle aipagarria, berriz, Alberto Zubiaurre eibartarra. Erreminta-makinaren sektoreari lotutako 26 enpresen partehartzearekin antolatu dute aurten IMH sariaren ekitaldia.

Berbia **Selektibitatea**

Elgoibar BH Institutuko 57 ikaslek egin dute aurten Unibertsitateko hautapropa, eta guztiek gairitu dute. Iaz, Elgoibar Institutuko ikasleen %98,4k gairitu zuten selektibitatea; 2007an, %96k; eta 2006an, %100ek, aurten bezala. Bestalde, Kurtso amaierako diploma banaketa ekitaldia egingo dute gaur arratsaldean Herriko Antzokian. Markel Bergara eta Mikel Labaka Realeko futbolariak emango dizkiete diplomak ikasleei.

Irudia **Kontzentrazioa**

Hamabost minutuko kontzentrazio isila egin zuten hainbat elgoibartarrek joan zen zapatuan, ETaren azken hilketa gaitzesteko. Ekainaren 19an Eduardo Puelles, Arrigorriagako polizia hil zuen ETAk, eta horren kontrako elkarteratzeak egin ziren zapatuan Eudelek deituta. Udaletxe aurrean, zinegotziak eta hainbat herritar bildu ziren.



Hezur-muin transplantea behar zuen kolonbiarra hil da

Elgoibarren bizi zen Sergio Acevedo kolonbiarra hil egin da aste honetan, 35 urterekin. Orain dela bi urte argitaratu zuen BARRE-NeK Sergio Acevedori eginiko elkarriketa. Leuzemia gaixotasuna zeukan, eta sendatzeko hezur-muin transplantea egin behar zioten. Egoeraren larritasuna ikusirik, aita biologikoarekin, Jorge Oñate abeslari kolonbiar ezagunarekin, harremanetan jarri zen. Aitak laguntza eskainiko ziola esan arren, azkenean ez zen horrela izan.



Azken zapatuko feria egingo dute bihar

Ekaineko azken zapatuko feria egingo dute bihar. 9:00etatik aurrera, Elgoibarko hainbat baseritako produktuak erosteko aukera izango da Nafarroa Plazan. Ondoren, ganadudunek euren abereak jarriko dituzte ikusgai Plaza Txikian, eta eguerdiko 12:30ean herri kirolen saioa izango da. Harri-jasotzaileak, trontzalariak eta lasto jurtiketa izango dira. Giroa alaitzen Baltzola Aniak tritilarriak arituko dira.

Leader diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Nekazaritza alorreko proiektu berritzaileak martxan jartzeko diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Mendinet elkarrekin bidertzen dituzte Leader diru-laguntzak, eta interesatuek Debemen elkartearen jaso dezakete informazio gehiago: 943 744 067 telefonoan.

argazki rallya

Mendaro fotografikoa

Mendaroko Udalak antolatuta, argazki rallya izan zen ekainaren 6an. Bost lagunek hartu dute parte. Udaleko teknikarien ustez, partaidetza txikia izan da, baina gustura geratu dira, eta datorren urtean ere antolatzeko asmoa erakutsi dute. Josu Juaristi elgoibartarra izan da irabazlea; bigarren sailkatua, Ainara Argoitia eibartarra, eta Andres Egaña mendaroarra hirugarren lekuan geratu da. Sari banaketa hilaren 21ean egin zuten. Erakusketa jubilatuen egoitzaren aldameneko lokalean jarri dute, eta datozen bi asteburuetan egongo da zabalik.

Ainhoa Andonegi

Hiru ordu izan zituen partaide bakoitzak Mendaroko erretratuak ateratzeko. Herriko irudi esanguratsuak harrapatu behar zituzten argazki kamerarekin. Bost argazki aurkeztu zituen bakoitzak, eta ondoren, epaimahaiak hartu zuen erabakia. Hiru lagunek oastu zuten epaimahaia: Mutrikuko Argazki taldeko kide batek, Aitor Etxeberria Mendaroko margolariak eta Irune Berasaluze alkateak. Jarraian dituzue partaide bakoitzaren argazki bana, eta alboko orrian, erretratu irabazlea.



Idurre Arakistain.



JF Loroño



Ainara Argoitia, 2. saritua.



Andres Egaña, 3. saritua.



Josu Juaristi

Argazkilaria

“Argazkilari on batek ez dauka ‘Photoshop’ beharrik”

Mendaron bizi den Josu Juaristi elgoibartarrak irabazi du argazki rallya. Herriko hiru kanpandorre bildu ditu erretratu bakarrean: Santa Ana, Azpilgoeta eta San Antonio. Epaimahaikideei argazki hori gustatu zaie gehien, eta 170 euro eskuratu ditu horri esker. Josu Juaristik argazkilaritzarako daukan zaletasunaren berri eman dio BARRENI.

Nondik datorkizu argazkilaritzarako zaletasuna?


Aitak argazkilaritzarako afizio handia dauka, eta beragandik ikasi dut. Bera da nire epailea. Nik argazkiak ateratzen ditut, eta berak esaten dit zer dagoen ondo edo zer hobetu daitekeen. Gustuko dut erretratuak ateratzea. Lagunei ere txapi ematen diet askotan argazki kamararekin, eta nire emaztea ere batzuetan aspertu egiten dut. Kamera kalera ateratzen badut, ez da bi argazki ateratzeko! **Mendaroko kanpandorreak aukeratu zenituen. Zergatik?** Mendaroko herriaren irudi errepresentatiboa egin behar zen. Ez nekien zer atera, baina epaimahaiaren gustukoa izan behar zela argi neukan. Beste erretratu bat ateratzen nengoela, hiru kanpandorreak argazki batean ateratzeko aukera ikusi nuen. Polita geratu zen. San Antonio, Azpilgoeta eta Santa Anako elizak enkoaraketa berean sartu nituen. Irudian kurutzeak, teilak eta beste hainbat elementu azaltzen dira.

Argazki rallyan ez dago erretratuak lantzeko aukerarik, ezta?

Ez, erretratuak atera diren moduan aurkeztu behar dira, ezin dira ordenagailuan manipulatu. Dena dela, ez naiz argazkiak atera ondoren, ordenagailuan lantzen dituzten horietakoa. Baditut hori egiten duten lagunak, eta erretratu oso ikusgarriak lortzen dituzte, baina horretarako denbora asko behar da. Erabat manipulaturik dagoen argazkia polita izan daiteke, baina horrek ez du esan nahi pertsona hori argazkilari ona denik; *Photoshopekin* da ona. Nik nahiago dut erretratuak atera diren bezala gordetzea. Gainera, nire ustez, argazkilari on batek ez dauka *Photoshop* beharrik.

Badakazu argazki lehiaketetan parte hartzeko afiziorik?

Ez gehiegi. Baina kasu honetan Mendaron zenez, eta asteburu hartan hemen geratu ginenez, animatu egin nintzen. Suertea eduki dut, eta neuk irabazi dut. Beste behin Interneteko argazki lehiaketa batean hartu nuen parte. Probatzearren erretratu bat bidali nuen, eta niri eman zidaten saria. Kamera digital bat tokatu zitzaidan. Kasualitatea izango da, baina bi aldiz parte hartu, eta biak irabazi ditut. Bitik bi!



Josu Juaristi: Mendaroko kanpandorreak. Argazki irabazlea.

San Juan... juan zan!

Dokumental batean agertuko dira Altzolako San Juan sua eta arbola

Deba ibaian egin zuten su itzelarekin ospatu zuten altzolarrek San Juan bezpera. Herritar asko hurbildu ziren sua ikustera eta horien artean zen Hasier Etxeberria kazetaria ere. Euskararen jatorriari buruzko dokumental bat zuzentzen ari da, eta Altzolako San Juan arbolaren irudi batekin hasiko dela dokumentala aurreratu du elgoibartarrak. Elgoibarko herrigunean eta baserrietan ere piztu zituzten suak.

Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Ume ugari egin zuten salto suaren gainetik, Sigman.




Altzolan, beste behin ere, Deba ibaian piztu zuten sua.



Arbola tente jartzeko ahaleginak egiten.



Altzolan sua egiteko prestaketa lanetan.



Basoan arbola moztu eta trenbidea zeharkatzen telebistako kamerak filmatzen ari zirela.

Idotorbe-San Pedroko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Gaur hasi eta astelehenera arte iraungo dute ospakizunek

Dena prest daukate Idotorbe-San Pedro auzoan jaiak ospatzeko: gaur hasiko da jai giroa eta astelehenera arte iraungo du.

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko dute Manu Alvarezen omenezko motokros proba, eta 24:00eta bolo txapelketa jokatu dute. Sei sari banatuko dituzte: lehenentzat 150 euro eta garaikurra, bigarrenentzat 100 euro, hirugarrenentzat 75 euro, laugarrenentzat 50 euro, bosgarrenentzat 30 euro, eta seigarrenentzat sorpresa. Lehenengo emakumeak ere garaikurra jasoko du.

Antxintxika igoera estreinakoz

Domekan, 12:00etan, San Pedroran antxintxika igoko dira estreinakoz. Lehen amaitzen duenak txapela, garaikurra eta 70 euro eskuratuko ditu, bigarrenak garaikurra eta 50 euro, eta hirugarrenak 30 euro.



Idi demak ere egingo dituzte 17:30ean hasita. Orioko Iñaki Oliden, Lezoko Jose Luis Arzadun eta Oiartzungo Jesus Ganaian izango dira parte hartuko dutenak.

Idi onenen jabeak 950 euro eta mantak jasoko ditu, bigarrenak 900 euro eta hirugarrenak 850 euro. Eta hirurek Udalak emandako garaikurra eta Luis Kortabariak emandako pentsu zakua eramango dituzte etxera.

Danborradakoak Arabako Errioxan



Elgoibarko Danborradako eta Udal Musika Bandako 150 lagun inguruk parte hartu dute joan den asteburuan Arabako Guardia herriko danborradan, San Juan jaiak ospatzen dituztela-eta, bertako Udalak gonbidatuta. Ezin hobeto irten zela dena azaldu dute bertan izan zirenetako batzuek. Elgoibarko danborradak herritik kanpora eskaini duen estreinako saioa "arrakastatsua" eta "errepikatze modukoa" izan dela adierazi dute.

Udaleku irekietan 122 haurrek hartuko dute parte

Aurtengo udan ere hainbat ekintza antolatu dituzte herrian inor ez aspertzeko. Horietako bat Atxutxiamaikako udalekuak dira. Udaleku irekiak uztaillaren 1etik 29ra arte iraungo dute, 9:00etatik 13:00etara. Aurten 122 haurrek hartuko dute parte.

Udaleku itxiak hiru herritan egingo dituzte: Mundakan, Askizun eta Lizarran. Mundakakoa uztaillaren 3tik 12ra izango da, eta 25 gaztek eman dute izena. Askizukoa hilaren 13tik 20ra izango da, eta 13 gaztek hartuko dute parte. Lizarrakoari dagokionez, uztaillaren 21etik 29ra iraungo du, eta 35 gazte joango dira bertara.

Kuadrillategikoek eta gaztelekuak udaleku bateratuak antolatu dute, eta uztaillaren 1etik 10era iraungo du. Bertan 40 gaztek parte hartuko dute.

Tibeten inguruko hainbat ekintza antolatu dituzte

Atisha elkarteak antolatuta, Tibet protagonista izango den hainbat ekimen egingo dituzte Elgoibarren, ekainean eta uztailean. Lehena, ekainean 30ean hasiko den erakusketa izango da: *Tibet: Dalai Lamaren erretratuak tibetar preso politiko ohiek margotuak*. Kultur Etxeko erakusketa gelan izango da astelehenetik barixakura 19:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta domekataran 12:00etatik 14:00etara, eta 19:00etatik 21:00etara. Erakusketak uztaillaren 7ra arte iraungo du.

Uztaillaren 1ean, hitzaldia egingo dute, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hitzalaria Nawang Lhamo La izango da, atzeriraturatutako Tibetar Gobernuak kidea.

Amaitzeko, uztaillaren 2an, 19:00etan, *Clandestinidad en el Tibet* dokumentala emango dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720


20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

ETXEBIZITZA BERRIENTZAT PROMOZIOA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

Muilledun koltxoa, biskoa 2 aldeetan
eta biskozko burko leuna

CELTA somierra,
tinkotasun
erregulagarriarekin




3D Biskoaire koltxoi grisa
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190..... 450€
120/135 x 190..... 670€
140/150 x 190..... 695€

MOYA somierra




Muellezko koltxoa
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190..... 255€
120/135 x 190..... 355€
140/150 x 190..... 410€

ZURE GORTINAK PRESTATZEN DITUGU. NEURRI GUZTIETAKOAK DITUGU. APARTE SALTZEN DIRA.

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Nahaste Borraste kirol proba jokatuko dute gaur arratsaldean

Kimetz elkarteak antolatuta, Nahaste Borraste herri-proba jokatuko da gaur arratsaldean. 19:00etan hasiko da Plaza Handian. Partaideek zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte lehenik bizikletaz. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, 400 metro egingo dituzte, eta, azkenik, 1.500 metro korrika.

25. edizioa

Nahaste Borrasteren 25. edizioa izango da gaur arratsaldekoa. Jose Maria Agirrebalzategi apaiza izan zen probaren sustatzailea. 1947an antolatu zuen estreinakoz, eta Jose Garitagoitia *Basueta* izan zen



ordu hartan irabazlea. Hiru urtez antolatu zuen ekitaldia, Elgoibartik alde egin zuen arte. 1988an Kimetzek hartu zuen Nahaste Borraste antolatzearen ardura, eta, orduetik, hutsik egin gabe jokatu dute urtero.

Atxotegik eta Loiolak jantzi dute Debarroko txapela

Eneko Loiolak eta Aitor Atxotegik osatutako bikoteak irabazi du Debarroko Pilota Txapelketa, senior mailan. Partida berdinduta joan zen hasieran, baina Elgetako bikoteak alde handia hartu zuen. 13-21 galtzen ari zen Lagunak taldeko bikotea, baina azkenean, 22-21 nagusitu zen.

Datorren domekan, bestalde, Arribilagak Berrizko lau t'erdiko finala jokatu du, Markinako Arrietaren kontra. Partida 17:00etan izango da, Berrizko frontoian.



1999an jaiotakoei futboleko jokatzeko deia egin die CD Elgoibarrek

1999an jaio eta futboleko jokatzeko interesa daukaten elgoibartarrei dei egin die CD Elgoibarrek. Biharko jarri dute zita: 10:30ean, Mintxetan.



IMH Ingeniaritza Eskola

Oraindik ezagutu gabe?

Elgoibarko unibertsitate mailako ikasketak:

IMH Ingeniaritza Eskola:

Goi-mailako zikloaren ondoren

IMHko ingeniaritza ikasi eta lan egin aldi berean



Ate irekiak:

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Uztailak 1: arratsaldeko 18:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola



25 elgoibartarrek amaitu dute Quebrantahuesos jendetsuena

Aurtengo Quebrantahuesos afizionatu mailako nazioarteko proba gogorra amaitzea Elgoibarko 25 lagunek lortu dute (31k eman zuten izena), eta Mendaroko zazpi txirindularik. Beste zortzi elgoibartarrek, berriz, laburragoa den Treparriscos (90 km.) amaitu zuten. Zortzi mila lagunetik gora zeuden izena emanda eta 7.220 lagunek amaitu zuten azkenean sekula egin den Quebrantahuesos jendetsuena. Bide bazterrek ere txirindulariak animatzera joandako jendez gainezka egon ziren. Treparriscos probako sailkapena ikusi nahi izanez gero, www.elgoiBAREN.net atarian dago. Hala ere, hainbat txipek arazoak eman zituzten, eta baliteke sailkapena ondo ez egotea.

SAILKAPENAK:

Izen-abizenak	Postua	Denbora	Izen-abizenak	Postua	Denbora
ELGOIBAR:					
1. Gabilondo Altuna, Ibon	69	6:10:36	18. Iraola Moyano, Iñaki	4.221	8:09:19
2. Rodriguez Mariño, Carlos	255	6:24:28	19. Amutxastegi Fernandez, Iker	1.540	8:23:22
3. Mujika Imaz, Aitor	293	6:25:38	20. Iturbe Ortiz de Zarate, Iñigo	1.546	8:24:13
4. Ortega Agote, Andoni	466	6:32:44	21. Gabilondo Aizpitarte, Mikel	4.882	8:28:52
5. De la Horra Irastorza, Gorka	519	6:35:07	22. Irazabal Gartzandia, Oier	1.665	8:41:07
6. Romera Herrero, Jonatan	558	6:36:31	23. Agirregomezkorta Usatorre, Andoitz	5.534	8:52:59
7. Romera Irizar, Aitor	761	6:43:47	24. Huidobro Torinos, Ricardo	5.887	9:06:19
8. Loidi Olañeta, Aitor	548	7:01:02	25. Bernedo Prado, Martin	6.801	10:05:24
9. Mujika Arkarazo, Alberto	1.586	7:05:32	MENDARO		
10. San Andres Toledano, Javier	1.601	7:05:43	1. Iraolagoitia, Azibar	84	6:13:02
11. Intza, Iñaki	2.415	7:24:05	2. Lazarobaster, Gaizka	392	6:29:26
12. Urbietta Sanz, Ion	2.626	7:29:31	3. Elorza, Enekoitz	2.127	7:17:39
13. Urbizu Ulazia, Juan Karlos	2.875	7:35:39	4. Iraolagoitia, Igor	2.166	7:18:34
14. Seijas Casado, Alberto	2.892	7:36:04	5. Urbizu, Juan Karlos	2.875	7:35:39
15. Mendikute Azkue, Iosu	1.141	7:42:44	6. Soto, Israel	4.855	8:28:03
16. Goñi Gabilondo, Iñaki	4.212	8:08:56	7. Cabello, Jose Ramon	6.255	9:25:09
17. Gabiola Colina, Koro	4.222	8:09:19			

KORO GABIOLA



Quebrantahuesos proba egin duen Elgoibarko emakume bakarra izan da Koro Gabiola. Proba amaitzeko zortzi ordu eta bederatzi minutu behar izan zituen elgoibartarrak.

Quebrantahuesos egin duzun lehen aldia izan da. Zer moduz?

Gauza arraroa izan da. Ez nuen pentsatzen hain denbora gutxian egitea. Eta ez nuen espero hainbeste sufritea: hasieratik hasi nintzen sufritzen, eta Portaleten hobetzen hasi nintzen. Normalean jendeak alderantziz egiten du: ondo hasi eta sufritzen amaitu. Gogorra egin zitzaidan, askotan pentsatu nuen bizikletatik jaistea.

Sufrimendua eta gozamena berbak erabili dituzu esperientzia azaltzeko.

Belauneko mina eduki nuen, aspaldi eduki gabea. Bizikletarekin ere arazoak eduki nituen: kanbioak gaizki sartzen zitzaizkidan. Azkenean buruan ere eragina eduki zuen horrek, eta asko sufritu nuen. Baina gozamena izan zen Portaleten jendea ikusi eta euren animuak entzutea: negar eta dena egin nuen. Inoiz ez dut hori sentitu.

Belauneko mina eduki arren, bestela, ondo sentitu zenuen zure burua?

Bizikletak kale egin zidan, belauneko mina neukan... dena kale egiten ari zitzaidanez, burua ere gaizki hasi zitzaidan. Gaizki nindoala pentsatzen nuen, eta Iñakik ondo nindoala esaten zidan; abiada ederrean. Ez nuen begiratu ordularia, ez nuen ezer jakin nahi; baina proba amaitzean uste baino hobeto egin nuela ikusi nuen.

Aurrez, Treparriscos proba egin duzu. Kilometroetan diferentzia handia dago, baina, horretaz gain, beste aldaketarik?

Azken batean, diferentzia zure planteamendua da. Treparriscos egitera joan naizenean denbora pasa joan naiz, gozatzeri: lehenengo urtean gutxi ibilita nengoan, eta gehiago sufritu nuen. Baina gainontzeko urteetan ondo pasatu dut. Quebrantahuesos alderantziz egin nuen orain dela hilabete: beste erritmo batean, eta ez nuen ezer sufritu. Azken batean, proba egitean zuk duzun helburua da zailtasuna jartzen duena. Baina bien arteko ezberdintasuna ikusleak dira: Portaleten jende mordo batzen da.

Elgoibartik joan den emakume bakarra izan zara. Datorren urtean beste norbait animatzea espero duzu?

Badakit animatuko dela norbait: Ainhoa Lendinez. Inbidiaz egon da aurtun. Bestalde aurtun txikia –Treparriscos– egin dute Elgoibarko hainbat neskak. Datorren urtean baliteke handira pasatzea. Gomentatzeko moduko proba da; behin, behintzat, probatzekoa.

Zuhaitz Gurrutxagak Bigarren A Mailara igotzea lortu du Real Unionekin

Xerez taldeko atezainen entrenatzaile den Gonzalez Lehen Mailara igo da

Bigarren A Mailara igo da Real Union Alcorcon taldea 3-1 gaituta. Zaleek eta taldeak berak dena eman zuten partidaren lehen segundutik, eta ondorioz, hamabosgarren minuturako bi gol eginda zituzten. Datorren denboraldian, beraz, Real Union zilarrezko mailan arituko da; eta, tartean, taldeko atzelari elgoibartarra, Zuhaitz Gurrutxaga.

Denboraldi biribila egin du Irungo taldeak: Real Madril Kopatik kanporatu zuen; Liga amaitzeko hiru jardunaldi falta zirela lortu zuen taldeak Bigarren B Mailako liga txapelketa irabaztea, eta horrekin igoera fasea jokatzeko sailkapena, 45 urteren ondoren, mailaz igotzea lortu duen arte.

Atezain izatetik, entrenatzaile

Bestalde, Xerez CD taldeak Lehen Mailan jokatu du estreinako aldiz, datorren denboraldian. Lorpen horretan berebiziko garrantzia eduki du Jose Luis Gonzalez atezain ohiaren lanak, Xerez taldeko




Jose Luis Gonzalez, zuriz.

atezainen entrenatzailea baita elgoibartarra. Taldea 1947an sortu zutenetik lortu dute Andaluziakoei talde askoren ametsa.

Jose Luis Gonzalez 2001-2002 denboraldian laga zion jokatzeari, azken denboraldia CD San Fernandon (Bigarren B

Maila) jokatu ondoren. Entrenatzaile ibilbidea hasi zuen gero Xerez taldean. Urte batzuk lehenago (1996tik 2001era) atezain aritu zen talde berean. Atezainen entrenatzaile gisa egin duen lanak zerikusia izan du taldeak egin duen denboraldi zoragarrian.



Zuhaitz Gurrutxaga.

Paul Fernandez, eskolarteko xake txapelketan onena



Domekan eskolarteko xake txapelketa jokatu zuten Plaza Handian. 7tik 13 urtera artekoek batera jokatu zuten: bakoitzak zazpi partida jokatu zituen. Irabazlea Paul Fernandez Campinun izan zen zazpi punturekin. Partida guztiak irabazi zituen 8 urteko mutilak. Bigarrena Urko Iriondo izan zen 6 punturekin, eta hirugarrena Markel Kerexeta, 5 punturekin.

Areto futbolean jokatu nahi dutenek taldea osatzeko proba edukiko dute uztailaren 8an

Elgoibarko areto futboleko klubak jokalaririk behar dituzten denboraldirako. Horregatik areto futbolean jokatzeko interesa duten jubenil, infantil eta kadete mailako gazteei taldea osatzeko probak egingo dizkiete. 1991 eta 1997 urteen artean jaiotako elgoibartarrek parte hartu ahal izango dute probetan. Aukeraketa proba uztailaren 8an egingo dute, 17:30ean, Olaizaga kiroldegian, kirol jantziarekin.

Kirol argazkien lehiaketan lanak aurkezteko epea uztailaren 18an amaituko da

Elgoibarko kirol argazkien lehiaketa abian jarri du Kirol Patronatuak, Gazteria Sailaren eta Ongarri argazki elkartearen laguntzarekin. Argazkiak aurkezteko Olaizaga kiroldegira jo behar da, eta horretarako azken eguna uztailaren 18a izango da. Aurkeztutako lanen artean hiru sari banatuko dituzte: herriko saria, gazte saria -35 urtera arte-, eta orokorra -35 urtetik gorakoentzat-. Sari banaketa abuztuaren 23an egingo dute, 20:30ean, Pleno Aretoan. Egun horretan hasita abuztuaren 30era arte, argazkien erakusketa egingo dute kultur etxeko sotoan, 19:00etatik 21:00etara.

LANA

ESKAERA

- Familia euskaldunak *au-pair-a* behar du Londresen irailetik aurrera. Idatzi mirenlondon@hotmail.com emailera edo deitu. ☎00447768243191
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldean edo gauez. ☎648 192 683
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko lanak edo edozertan lan egiteko prest. ☎678 939 382
- Emakume gaztea, pertsona nagusiak edo haurrak eta garbitzaile lanak egiteko prest. ☎686 578 228
- Emakumea etxeko lanka, garbiketara lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎680 808 125
- Pertsona bat behar da uztailean klase partikularrak emateko. Goizez. ☎615 787 118
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar. ☎671 343 612
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar. ☎671 476 869
- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎660 916 466
- Neska gaztea abuztuan lan egiteko prest. Edozertan. ☎606 169 667
- Emakumea euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduek zaintzeko. Eskarmentua du. ☎615 762 742
- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak, portalak edo tabernak garbitzeko lanerako. ☎648 603 029

- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko edo ontziak garbitzeko. ☎657 142 376
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldean ahal izanez gero. ☎943 743 251
- Emakumea, lanerako prest. Pertsona nagusiak zaintzeko prest eta tabernak edo lokalak garbitzeko prest. ☎671 476 869
- Neska euskalduna etxeko lana egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Jai egunetan ere bai. ☎676 876 408

ESKAINZA

- Udako hilabeteetako finantza-matematikak ematen dituen irakasle bat behar da. ☎650 829 246
- Zerbitzari bat behar dute orain ireki behar duten jatetxe batetarako. ☎679 155 980
- Elgoibarko Udalak obren lantalderako hamar langile kontratatuko ditu. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 25era arte. ☎943 471 050

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Donostian etxebizitza alokagai, Egia auzoan. Abuztuan. ☎655 723 678
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxan). Erdigunean. Prezio onean. ☎941 341 437 / 676 882 373 (Esther)
- 3 logelako etxebizitza bat hartuko nuke errentan Elgoibarren. ☎618 163 061

- Etxebizitza alokatzen da Culleran (Valentzia). Uztaile eta abuztua. Hondartzatik gertu. ☎943 743 510
- Apartamentua alokatzen da La Matan (Torrevieja). Hondartza parean. Hamabostaldiak edo asteak solte. Prezio onean. ☎659 621 307

LOKALAK

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Plaza Handitik gertu. 16 metro koadrokoa. Prezioa: 23.500 euro. ☎615 787 748

MOTORRA

- Bost ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metaliztua, aire girotua, oso ondo zaindua, beti garajejan, 22.000 km bakanrik! 7.000 euro. ☎675 007 661 (Dorleta)

BESTELAKOAK


- Urrezko belarritako bat galdu da Banco Guipuzcoanotik Eroskira bidean. ☎943 943 740 365
- Trinitateko igandean 2 erroberako patinetea galdu zen plaza inguruan, lauki zuri-beltzak ditu. Saritukoa da. ☎943 742 574

SAN PEDRO
J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobe!

SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR



• Zorionak, **Maitane**, familia guztiaren partez, bereziki Ion eta Janireren partez. Ondo pasa eguna!



• Zorionak, **Amanda**, 6. urtebetetzean zure guraso eta familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Gorane**, 2 urte bete dituzulako. Muxuak aita, ama, Amanda eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Irene**, gaur 3 urte betetzen dituzulako. Muxuak gurasoen partez, bereziki Leireren partez.



• Zorionak, **Maddi**, gaur urtetxo bat bete duzulako. Muxu asko familiakoen partez.




• Zorionak, **Mikel**, zure lehenengo urtebetetze egunean. Muxu handi bat tia Isaren partez.



• Zorionak, **predoxa!** Gaur 3 urte bete dituzu. Muxu handi bat familiaren partez, eta bereziki Ikerren partez.



• Zorionak, **printzesa**, martitzenean 5 urte. Muxu handi bat familiaren eta bereziki Aneren partez.




• Zorionak, **Iraitz**, zure laugarren urtebetetzean. Lau muxu handi etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Eñaut**, 9 urte betetzen dituzulako. Muxuak gurasoen eta bereziki Haritzen partez.



• Zorionak **Elene!** Prestatu domekan belarrietatik sei tira eta propinazkoa jasotzeko. Etxekoak eta Joseba.



• Zorionak, **Tanborrero**, zure 7. urtebetetzean familiaren partez. Horrela segi, jator eta majo. Txalo bat



• Zorionak, **Tatiana**, zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Anetxo**, 2 urteko sorginxoa, ahizpa Enara, aitatxo, amatxo eta familiakoen partez, muxuak.



• Zorionak, **Luken** eta **Nora**, zuen 5. eta 2. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu asko familiaren partez

• Zorionak, **Imanol**, astelehenean 26 urte bete zenituelako. Muxuak familiaren eta bereziki zure arreba eta koinatuaren partez.

OSPAKIZUNAK ZORIONAK ZURI



Zorionak, **koadrila**, maiatzean urtetxo bat bete zenutelako, muxu potolo bat ikastolako laguntxoaren partez.

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

28 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 26 Yudego
- 27 Etxeberria (*Errosario*)
- 28 Ibañez
- 29 Garitaonaindia-Bidasolo
- 30 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 1 Garitaonaindia-Bidasolo
- 2 Garitaonaindia-Bidasolo
- 3 Garitaonaindia-Bidasolo

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Lobezno»

26, barixakua: 22:30
(Plaza Handian)

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria: Gavin Hood. Aktoreak: Hugh Jackman, Danny Huston, Liev Schreiber. Irupena: 105 minutu. X-Men filma baino 17 urte lehenago

kokatuta dago, eta Wolverineren iragana kontaktzen du, nola bihurtu zen mutante; baita X armaren hasiera ere.

26 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako emanaldia. Plaza Handian.

Kurtso amaiera

19:00 Diploma banaketa

Elgoibar BH Institutuko diploma banaketa.

Kirola

19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, Plaza Handian.

Lehiaketa

19:00 Gurean Bai pintxo

lehiaketa

Elgoibarko hamar ostakaritza-establezimendutan euro baten truke pintxoak probatzeko eta baloratzeko aukera izango da.

27 zapatua

Lehiaketa

11:30 Gurean Bai pintxo

lehiaketa

Elgoibarko hamar ostakaritza-establezimendutan euro baten truke pintxoak probatzeko eta baloratzeko aukera izango da.

Azoka

9:00 Azken zapatuko feria

Hileko azken zapatuko azoka egingo dute. Baserrietako produktuarosteko aukera, ganadu erakusketa eta trikitilariak izango dira. Nafarroa Plazan eta Plaza Txikian. Eguerdiko 12:30ean herri kirolen saioa egingo dute, Nafarroa Plazan.

28 domeka

Kirola

9:00 BTT martxa

Debabarreneko BTT klubak antolatuta, txirindulari irteera. Mintxetatik.

30 martitzena

Erakusketa

19:00 Margo erakusketa

Tibet: Dalai Lamaren erretratuak, tibetar preso politikoeak margotuta. Uztailaren 7ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

1 eguaztena

Hitzaldia

19:00 'Nawang Lhamo La'

Atzerirartutako Tibetar gobernuaren parlamentaria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

2 eguena

Dokumentala

19:00 'Clandestinidad en el Tibet'

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

3 barixakua

Dokumentala

19:00 'Fuego en la nieve'

Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Jarraian, Tibeteko kantu sakratuen emanaldia eskainiko dute.

 <p>LUDETEKAKO EKINTZAK</p>	 <p>GAZTELEKU ETA GIG-eko EKINTZAK</p>
<p>Eguaztenero Mintxetako igerilekuetara joango gara bazkideekin 16:00etan.</p>	<p>Uztailaren 1ean udalekuetara joango gara! Uztailaren 14ean zabalduko dugu berriro gaztelekuak. Ekainaren 29tik aurrera GIG goizez bakarrik zabalduko da. 10:00etatik 14:00etara. Barixakuetan itxita!</p>



IDOTORBE-SAN PEDROKO JAIK

26 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta txapligu jaurtiketa
21:00 Auzotarren afaria

27 ZAPATUA


16:00 Manu Alvarezen omenezko motokros proba
23:00 Gaupasa
Izer, Alabier eta Lutxordio taldearekin.
00:00 Bolo txapelketa
Goizaldean, txokolate jana

28 DOMEKA

10:30 Meza
12:00 San Pedrorra korrika igoera
13:00 Harrijasotzaileen erakustaldia
Goikoetxe eta Eizmendi harrijasotzaileekin.
17:30 Idi demak
Iñaki Oliden (Orio), Jose Luis Arzadun (Lezo), Jesus Ganaian (Oiartzun).

29 ASTELEHENA

11:00 Meza
Ondoren, Saizar, Zahatxu eta Armuetak eskainitako hamaiketako.
13:00 Pilota partida, Lagunak taldeak antolatuta.
14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria
Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin.
18:00 Zozketa
Egun osoan zehar Baltzola anaien jardungo dute giroa alaitzen.



GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara: 943 743 704 edo helbide honetara idatzi: barren.publi@elgoibarkoizarra.com



INMOBILIARIA ESTUDIO PS XXI

INMOBILIARIA ZERBITZUAK
ETA BARNEKO ARKITEKTURA

▲ Estudio PSXXI inmoiliarik, lekuz aldatu arren, on-line bulegoari eutsiko dio, www.inmoiliaripsxxi.com atarian.

▲ Orain arte bezala, estudiosigloxxi@euskalnet.net e-postara idatzi edo 943 742 306 zenbakira deitu dezakezue, gurekin harremanetan jartzeko, erosteko, saltzeko, alokatzeko, dekoratzeko edota berrikuntza zein proiektuak egiteko.



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

URKIDI
AHOLKULARITZA



Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xizailon, 2 - 3. soltoa 943 74 35 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Jose Angel Zabala
MAHASTI
Urdaitegi eta ardandegia
Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



«Las cronicas de Narnia y el principe Caspian»

27, zapatua: 22:30
(Plaza Handian)

Estatu Batuak, 2008, zuzendaria: Andrew Adamson. Aktoreak: Ben Barnes, Georgie Henley. 147 min. 1.300 urte narniar igaro dira azken abenturatik, eta tarte horretan, tel-

marinoek kontrolatu dute inguru osoa, guztia txikituz. Narniari garai bateko itxura eta ongizatea itzularazteko Caspianen laguntza izango dute anaia-arrebek.

Gure berbak

Hiztegixa (10)

Euskera giputzera hurreratzen gaituen ezaugarri lexiko gehixago gaur ere.

o Baldintza-perpauak osatzeko, **BALDIÑ** lokailua erabili leike gure artian, eta mendebalderago ez da erabiltzen.

- ♦ *Kotxian baldin banjua, tak! Abantau orduko emango diot nik radixuari*
- ♦ *Antxobia txakur haundixan baldin badao, ekarri. Da handik gora badao, ez ekarri.*

o Galderak egiteko, **AL** partikulaa ere erabiltzen dogu, asko ez baldin bada ere; mendebalderago, ez dabe erabiltzen.

- ♦ *Hamen sobran da marmitakua ta, ero haragixa daona ta, nahi al dok, ba? Ta, "ekarri".*
- ♦ *Basarrikua al tzero? - Bai. - Orduan ezta kazu esplikazio biharrik.*

o Elgoibarren, ez da erabiltzen aurkartzako **BAIÑO** juntagailua: **Hori eztot nik eñi, Mirenek baiño.* Horren orde, **BAIZIK** erabiltzen da.

o **ERE** lokailuari dagokionez, aldaera hori erabiltzen dogu Elgoibarren, eta ez Eibarren eta mendebalderago erabiltzen daben **BE** (eta leku batzuetan **BERE**) aldaeria.

o Aditzaren esparrura etoririk, **ARI IZAN** ere erabiltzen dogula esan bihar da, **JARDUN** arruntagarekin batera. Mendebaldera guazen bezela, ez dogu **ARI IZAN**-ik aurkittuko.

o Elgoibarren, ez dira **-ITTU** partizipio-amaierak erabiltzen: *hoztu, belztu, hustu...* eta ez mendebalderago eta Mutrikun bertan ere ezagutzen diran **hotzittu, *beltzittu, *hutsittu...*

o **-AU** partizipio-amaiera euskal jatorriko aditz batzuetan ere: *zorau, hasarrau, aukerau, aixkirau, ingurau...*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1970

Elgoibarko 40 lagunek Bizkai aldera egin zuen irteera 1970eko ekainaren 28an. Hamarretakoa Zornotzan egin zuten, eta, Bermeon txikiteoan jardun ondoren, Gernikan bazkaldu zuten. Arratsaldeko txikiteoa Lekeition izan zen, eta afaria Ondarroan. Taberna baten 40 txikito eskatu zituztenean, tabernaria aho zabalik geratu zen, eta bi lagunek guardia zibilen kuartelean amaitu zuten eguna, Ondarroako Alamedako Kukañara igotzen saiatzeagatik. Urtero errepikatu dute bidaia, baina aurtan, hamabi lagun baino ez dira joango. Ekari izena dauka koadrilak, eta 1979an Goiko Errota elkartea sortu zuten.

1. Ramon Zabala, 2. Imanol Solozabal (†), 3. Yulen Sanz, 4. Alberto Solas, 5. Jose Antonio Iriondo, 6. Pedro Osoro, 7. Jesus M. Elizburu, 8. Angel Palomino, 9. Ramon San Martin (†), 10. Jose Luis Elizburu, 11. Jose Luis Lasa, 12. Ignacio Fernandez de Jauregi, 13. Enrike Zubiaurre (†), 14. Jose M. Otaegi (†), 15. Jose M. Gurrutxaga, 16. Alfredo Santos (†), 17. Aurelio Valenciano, 18. Felix Artaso, 19. Felix Bergua, 20. Jose M. Muruamendiaraz, 21. Miguel M. Arriola, 22. Armando Lasuen, 23. Jose M. Loiola (†), 24. Xabier Gorostiza, 25. Luis M. Barandiaran, 26. Felix Retolaza, 27. Ramon M. Unzueta, 28. Luciano Guerra (†), 29. Jesus M. Ortueta (†), 30. Rafa Beitia, 31. Jesus M. Iglesias, 32. Luis Gurrutxaga, 33. Luis M. Ulazia, 34. Jesus Bilbao, 35. Angel Mujika, 36. Jose Alberdi, 37. Victor Olabarria (†), 38. Jose Luis Lascurain (†), 39. Iñaki Murua (†), 40. Cefe Gonzalez.



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 beheko
Pai. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

DEKORAZIOA

Kango eta barmeko estaldura
Zolak ezarpenak
Lakadura egur, aluminio, PVC,
Pintura orokorra

ECANIZADOS S. COOP BUKATU.

OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6
66 aldea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htp: www.bukatu.es

MINTXETA

igerilekuko taberna

Uztailaren 1ean irekiko da
arratsaldeko 15:00etan izango da
INAUGURAZIOA

**ZATOZ,
GONBIDATUTA
ZAUDE!!!**



Gure eskaintzak:

- OTARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK
- ENTSALADAK
- OILASKO ERREA
- ETXEKO POSTREAK



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabiloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabiloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Koleorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

